# Bestelako Xedapenak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### 479

EBAZPENA, 2004ko abenduaren 28koa, Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena. Horren bidez, Bilbao Bizkaia Kutxari emakumezkoen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako lankidetza erakundearen izaera onartu zaio.

Azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuaren bidez, emakumezkoen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako lankidetza erakundearen figura sortu zen honako xede hauekin: batetik, gizarte- eta lan-esparruan aukera-berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenak bultzatzea; bestetik, aipatutako esparruetan egindako lana aitortzea hainbat entitateri.

Hortaz, Jon Joseba Mancisidor Solaberrieta jaunak, Bilbao Bizkaia Kutxaren izenean aurkeztutako eskaria aztertuta, eta emakumezkoen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako politika bat garatzeko Entitateak sinatutako dokumentuaren balorazioa eginda,

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.***– Bilbao Bizkaia Kutxak erakundean emakumezko eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako politika bat garatzeko sinatutako konpromiso-dokumentua oinarri hartuta, Kutxari aukera-berdintasunerako lankidetza erakundearen izaera aitortzea, azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuak -emakumezkoen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako lankidetza erakundearen figura sortu zuenak- ezarritako irizpide eta baldintzen arabera.

***Bigarrena.***– Bilbao Bizkaia Kutxak aitormena erabili ahal izango du egoki ikusten dituen irudi-osagai guztietan, aitormenak indarrean dirauen bitartean.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, eta horren aurka Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, bi hileko epean, Euskal He-

# Otras Disposiciones

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### 479

RESOLUCIÓN de 28 de diciembre de 2004, de la Directora del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea, por la que se otorga el reconocimiento de Entidad Colaboradora en Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres a la Bilbao Bizkaia Kutxa.

Mediante Decreto 424/1994, de 8 de noviembre se creó la figura de Entidad Colaboradora en Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres, con el fin de incentivar las iniciativas que pudieran surgir en el ámbito sociolaboral a favor de la igualdad de oportunidades, así como de reconocer la labor realizada por las distintas entidades en dicho ámbito.

En su virtud, a la vista de la solicitud presentada por D. Jon Joseba Mancisidor Solaberrieta, en representación de la Bilbao Bizkaia Kutxa, y de la valoración realizada del documento de compromiso suscrito por la Entidad para el desarrollo de una política de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres,

RESUELVO:

***Primero.***– Otorgar el reconocimiento como Entidad Colaboradora en Igualdad de Oportunidades a la Bilbao Bizkaia Kutxa en los términos y condiciones establecidas en el Decreto 424/1994, de 8 de noviembre, por la que se crea la figura de Entidad Colaboradora en Igualdad de Oportunidades, en base al documento de compromiso suscrito por dicha Entidad para el desarrollo de una política de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres en su organización.

***Segundo.***– La Bilbao Bizkaia Kutxa podrá utilizar dicho reconocimiento en cuantos elementos corporativos de imagen considere oportunos, mientras el mismo continúe vigente.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– La presente Resolución pone fin a la vía administrativa y contra ella podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Directora del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de

rriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

*Bigarrena.–* Ebazpen honek, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko abenduaren 28a.

Emakumearen Euskal
Erakundeko zuzendaria,
TXARO ARTEAGA ANSA.

dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo Boletín.

*Segunda.–* La presente Resolución surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de diciembre de 2004.

La Directora del Instituto Vasco de la
Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea,
TXARO ARTEAGA ANSA.

## KULTURA SAILA

## 480

18/2005 DEKRETUA, urtarrilaren 25ekoa, Muskiz eta Galdamesen (Bizkaia) den El Pobaleko Burdinola, Monumentu Multzo izendapenaz, Sailkatutako Kultura Ondasun izendatzeko espedientea Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legera egokitu zuen Dekretua aldatzeko dena.

Martxoaren 16ko 49/2004 Dekretuaren bidez (martxoaren 25eko EHAA, 58. zk.), Muskiz eta Galdamesen (Bizkaia) den El Pobaleko Burdinola deklaratzeko espedientea Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezartzen duenari egokitu zitzaion.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Lan eta Garraio Sailak ezarri zen mugaketaren aldaketa zehatza eskatu zuen. Eskaeraren zioa hau zen: erabili zen agiri grafikoa eguneratu barik zegoela eta mendebaldeko mugan BI-2701 errepideak duen egoera erreala ez zela agertzen. Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek hau egiaztatu ondoren, 2004ko urriaren 14an txostena eman zuten 49/2004 Dekretuaren I. eranskineko planoa eguneratutako bategatik aldatu behar zela esanez.

Horretarako, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 2004ko azaroaren 19ko Ebazpenaren bidez, Muskiz eta Galdamesen (Bizkaia) den El Pobaleko Burdinolaren gaineko martxoaren 16ko 49/2004 Dekretua aldatzeko espedienteari hasiera eman zitzaion, era berean jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko izapidea emanez (abenduaren 21eko EHAA, 242. zenbakia).

Espedientea jendaurrean jartzeko izapidea eta interesdunen entzunaldia burutu ondoren, ez da alegaziorik aurkeztu.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

## 480

DECRETO 18/2005, de 25 de enero, de modificación del Decreto por el que se adapta a las prescripciones de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, el expediente de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, a favor de la Ferrería del Pobal, sita en Muskiz y Galdames (Bizkaia).

Mediante el Decreto 49/2004, de 16 de marzo (BOPV n.º 58, de 25 de marzo) se adaptó a las prescripciones de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, el expediente de declaración de la Ferrería del Pobal en Muskiz y Galdames (Bizkaia).

El Departamento de Obras Públicas y Transportes de la Diputación Foral de Bizkaia solicitó la modificación puntual y concreta de la delimitación establecida, ya que la documentación gráfica utilizada no estaba actualizada y no reflejaba la situación real de la carretera BI-2701 en el límite oeste. Una vez verificado por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural, se emite informe el 14 de octubre de 2004 en el que se indica que procede sustituir el plano del anexo I del Decreto 49/2004 por un nuevo plano actualizado.

A tal fin, mediante Resolución de 19 de noviembre de 2004, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, se incoó el expediente de modificación del Decreto 49/2004, de 16 de marzo, sobre la Ferrería del Pobal sita en Muskiz y Galdames (Bizkaia), sometiéndose a los trámites de información pública y audiencia al interesado (BOPV n.º 242, de 21 de diciembre).

Abierto el trámite de información pública y audiencia a los interesados, no se han presentado alegaciones.